

HERRITARREN FOROAREN BILERA

Bilera antolatu duen organoa:	Hondarribiko Udala
Deialdia egin duena:	Hondarribiko Udaleko Ingurumena eta Agenda 21 departamentua
Data, tokia eta ordua:	2010eko apirilak 15 Hondarribiko Udaleko Udalbatza Aretoa 19:00
Harremanetarako pertsonak:	Ingurumena eta Agenda 21 departamentua: - Naroa Susperregi Idazkaritza Teknikoa (Izadi 21): - Aitor Gonzalez - Edurne Simón
Telefonoak:	943 111 242 (Naroa Susperregi) 943 492 215 (Izadi 21)
Helbide elektronikoa	ingurumena@hondarribia.org (Naroa Susperregi) info@izadi21.net (Izadi 21)
Gai-zerrenda:	<ol style="list-style-type: none"> 1- Bileraren aurkezpena 2- Bileran landutako gaien eta Agenda 21en ekintza planaren arteko harremana 3- Uhin elektromagnetikoen gaia arautzen duen ordenantzaren aurkezpena 4- Hondarribiko autobus zerbitzuaren inguruko berrikuntzak 5- Jaizkibel Kontserbazio Bereziko Eremuari buruzko kudeaketa planari lotutako partaidetza prozesua 6- Bertaratutakoen zalantzak edo proposamenak

PARTE HARTU DUTE:

Banakako herritarrak:

- Asun Yarzabal
- Begoña Gojenola
- Carlos Alejos
- Marcelina Pascual Lugmany

Elkarteak, enpresak, eskola zentroak:

- ACUBI –*Asociación de Consumidores y Usuarios del Bidasoa*- (Belén Martínez)
- Harresi Elkartea (Isabel Mayor)
- Indisca e Indivus elkarteak (Carlos Fernández)
- Interbus (Mikel Urretabizkaia)

- Amute-Kosta auzo elkarte (Iñaki de la Fuente)
- Surbesta Abesbatza (Rosa Gómez)

Erakundeak:

- Hondarribiako Udala (Gregorio Berrotaran Etxeberria –Landa Garapeneko zinegotzia-, Ion Elizalde Caballero –Ingurumena eta Agenda 21eko zinegotzia-, Josu Alvarez Yeregui –PSE/EEko zinegotzia-, Isabel Olazabal Lekuberría –Euskara eta Hezkuntza zinegotzia-, Maiaia Urrutia Gastesi –EAJko zinegotzia-, Miren Legorburu Galaieta– EAEko zinegotzia-).

1. Bileraren aurkezpena:

Hondarribiko Agenda 21en Herritarren Foroaren bilerari hasierako emateko, Ion Elizalde (Hondarribiko Udaleko Alkateordea eta Ingurumena eta Agenda 21en zinegotzia) bertaratutakoei bilerara etorri izana eskertu die lehenik eta ondoren, bileraren gai zerrendari buruzko aurkezpen labur bat egin du. Bileran lantzeko gaiak dagokionez, uhin elektromagnetikoak arautzeko ordenantzaren edukia deskribatzeko asmoz, Udalari ordenantza horren prestaketan laguntza eman dion ingeniaria aurkeztu du, Nicolas Corta. Aldi berean, Ionek ordenantza idaztearen arazoak deskribatu ditu:

- Duela 3 urte inguru Bixkundiko eraikinetako bizilagunek Udalari adierazitako kezka, eraikin horietan dauden antenak direla medio.
- Antenen gain eta oro har, uhin elektromagnetikoak emititzen dituzten azpiegituren arloan, egun dagoen lege-hutsuneari erantzuteko beharra.
- Azpiegitura edo gailu horien zabalkundea Hondarribian antolatu, kontrolatu eta jarraipena egitearen beharra. Horrekin batera, Ionek aipatu du Udalak intentzioa duela telekomunikazio zerbitzuak eskaintzen dituzten enprekin akordio batera iristeko, guztion interesak modu ordenatu batean araututa eta ezarrita gerta daitezela.

Laburpen hori eginda, gaurko bilerako gaiak Hondarribiko iraunkortasunerako Ekintza Planarekin duten harremana azalduko duen Izadi 21eko teknikariari hitza pasa dio Ion Elizalde.

2. Bileran landutako gaien eta Agenda 21en ekintza planaren arteko harremana

Hondarribiko iraunkortasunerako I. Ekintza Planaren prestatze lanen ondoren, 2009ko martxoaren 12an Hondarribiko udalbatzak onartu zuen. Orduz geroztik, Udaleko Ingurumena eta Agenda 21 sailaren koordinaziopean, Ekintza Planaren edukia aurrera eramateari ekin zion Udalak. Bileran landutako diren gaiak Ekintza Planarekin duten harreman zuzena azaldu asmoz, gai horiek garapen iraunkorraren aldeko dokumentu estrategiko horretan duten isla erakutsi du Edurne Simonek (Izadi 21eko teknikaria) –ez da ahaztu behar, bilera honetan aurkeztutako proiektu edo ekimenek laguntzen dutela Ekintza Planaren edukia gauzatzeko eta beraz, Planaren helburuak progresiboki betetzen ere-.

Autobus zerbitzuaren hobekuntzarekin zerikusia duten ekintzak:

L5. BIZTANLERIAREN MUGIKORTASUN ETA IRISGARRITASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK AINTZAT HARTUZ ASETZEA

P 5.2. Kalitatezko Garraio zerbitzu publiko eraginkorra eta erakargarria sustatzeko programa

E 5.2.2. Herritarren beharrei erreparatuz, Udaletik garraio publikoaren zerbitzu berriak martxan jartzea bultzatu (lehentasun maila: altua)

L2. BIZTANLE GUZTIEN BIZI KALITATEA ETA GIZARTE ONGIZATEAREN HOBEKUNTZA BULTZATZEA

P 2.5. Biztanleen osasuna babestu eta osasun zerbitzuen hobekuntza sustatzeko programa

E 2.5.3. Bidasoako Ospitalera doan garraio publikoaren eskaintzari lotutako hobekuntza posibleak aztertu beste erakunde eskumendunekin elkarlanean (lehentasun maila: ertaina)

Uhin elektromagnetikoen arauketaren ordenantzarekin zerikusia duten ekintzak:

L7. HIRI INGURUMENAREN KALITATEA HANDITU ETA NATUR BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNKORRA SUSTATZEA

P 7.9. Hiri ingurunearen kalitatea hobetzeko programa

E 7.9.2. Erradiazio elektromagnetikoei buruzko udal ordenantza idaztea (lehentasun maila: baxua)

Jaizkibel Kontserbazio Bereziko Eremuaren kudeaketa planaren partaidetza prozesuarekin zerikusia duten ekintzak:

L6. UDALERRIKO NATURA INGURUNEA BABESTEIA ETA BERE BALOREAK EZAGUTZERA EMATEA (BIOANIZTASUNA ETA PASAIAREN BABESA)

P 6.1. Dagokion antolamendu, kudeaketa eta kontrol tresnen bidez Hondarribiko lurretan kokatutako natur guneen babesa bermatzeko programa

E 6.1.1. Jaizkibelgo BGLaren kudeaketa egokia gauzatze aldera, Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin jarduerak koordinatu eta erakundeen arteko elkarlana aurrera eramatea (Jaizkibelgo kudeaketa planaren zirriborroaren berrikuspena, interes komunitarioko eremuen babesa, e.a.), Udaletik Jaizkibelgo kudeaketa planaren idazketa, onarpena eta abiaraztea bultzatuz (lehentasun maila: altua)

E 6.1.2. Udaletik Hondarribian kokatuta dauden *Natura 2000 Sarean* barneratutako Jaizkibel eta Txingudiko BGLAak (Europako Batasuneko Garrantzizko Lekuak) KBE (Kontserbazio Bereziko Eremua) izenda daitezela bultzatu eta baita natur eremu horien Kudeaketa Planen idazketa zein onarpena ere (lehentasun maila: baxua)

3. Uhin elektromagnetikoen gaia arautzen duen ordenantzaren aurkezpena

Nicolas Corta ingeniariak Hondarribiko uhin elektromagnetikoen gaia arautzen duen ordenantzaren edukia laburbildu du lehenik, ondoren, Ion Elizalde bertaratutakoei hitz pasaz, beraien zalantzak edo proposamenak azaltzeko aukera izan dezaten.

Oro har, ordenantzak, telefono mugikorren instalazioen arauketa barneratzen du. Telekomunikazio estazio hauek jartzen dira estaldura arrazoiengatik eta mugikorren deien "trafikoarengatik" (dei horiek bideragarriak egiteko). Gainera, kontuan hartu behar da, mugikorrek jasaten ari diren teknologia mailako hobekuntza edo "aurrerapenak" eskaini ahal izateko, beharrezkoa dela instalazio horiek nonbait kokatzea (mugikorrek jada ez dira erabiltzen soilik deiak egin eta mezuak bidaltzeko –orain ere interneten ibiltzeko, musika entzuteko, etab. ere erabiltzen dira eta horrek instalazio gehiagoren beharra dakar berekin-). Beraz, telekomunikazio instalazio horien ezarpena eta udalerriko hirigintza, paisaia nahiz ingurumen alorreko baldintzen bermearen arteko oreka bat bilatzeko asmoz, Udalak duela bi urte inguru gai hau arautzea erabaki zuen.

Aldi berean, ordenantzaren bidez instalazio mota bakoitza sailkatu eta sailkapen bakoitzari dagokion araudi zehatza finkatu da.

Ordenantzan onarpenarekin batera, telefonia mugikorreko operadoreei eskatuko zaie hurrengo urteetarako zein hedapen-plangintza duten aurkezteko (hau da, epe ertainera zein jarduera gauzatzea aurreikusten duten telekomunikazio instalazio horiei dagokionez). Plangintza horren bidez eta ordenantza eskuartean duela, Udalak lortuko duena da jakitea instalazio zehatz bat jartzeko halako enpresa baten baimen eskaera jasotakoan, zer eskatu ahal izango dion enpresa horri. Horrekin batera, aipatu behar da Hondarribirako prestatutako uhin elektromagnetikoak arautzeko ordenantza gai honetan egun indarrean dagoen oinarrizko legediak dioena baina haratago doala (hau da, ingurumen ikuspuntutik zorrotzagoa dela eta Europako beste estatu batzuetako arautegietan oinarritzen dela), ingurumen arloan hainbesteko garrantzia duten prebentzio eta arduraren printzipioekin bat etorritik, emisio mailak zorrotzen dituelako. Ildo honetan, ordenantzak uhin elektromagnetikoen emisioei dagozkien mugaketak eta erradiazioen kontrola nahiz neurketak egitea ere barneratzen ditu, hirigintza arloko planeamenduari dagozkion zehaztapenak ere jasoaz.

Bertaratutakoei hitza pasa aurretik, Ion Elizalde gaineratu du, erradiazio elektromagnetikoen inguruko ikastaro eta jardunaldi teknikoetan parte hartu dutela udal ordezkariak azken urteetan, eta horrekin batera, batzutan ere udalerriko bizilagunek hala eskatuta, tokian tokiak neurketak egin izan dituztela.

Jarraian jasotzen dira bertaratutakoek egindako ekarpenak eta planteatutako galderak:

- ✓ Bertaratutako banakako herritar batzuek instalazio elektromagnetikoek eragin ditzaketen osasun arloko eraginen inguruko kezka azaldu dute. Ildo honetan, Ion Elizalde aipatu du nola duela urte batzuk Udalak Osakidetzari udalerriko osasunaren inguruko datuak eskatu zizkion, jakinda zenbait herritarrek herriko osasun egoeraren arloko kezka azaldu izan diotela Udalari behin baino gehiagotan. Badirudi Osakidetzak Udalari erantzun ziola Hondarribia EAEko gainerako udalerriek duten osasun egoeraren batez bestekoaren barruan kokatzen dela. Dena den, Ionek bere gain hartu du berriro ere Osakidetzari kontsulta egiteko konpromisoa.
- ✓ Zenbait udalerritan onartzen ari diren ordenantzak direla eta, ez al dago EAE mailako araudirik estatukoaz gain? Ordenantza onartzearen ondorioz ez al da interes kontrajarrien arteko gatazka gertatuko? Udaletik erantzun zaio telekomunikazioen gaian legeak egiteko eta onartzeko eskumena estatuarena dela, hori dela eta, ez dagoela EAE mailako berezko araudirik. Ildo honetan, azpimarratu behar da Udalak hirigintza eta ingurumen arloan arautzeko ahalmena baduela (beti ere, arlo horietako oinarrizko legediak barneratutako gutxiengo edukia bermatuz), baina berez Udalak ez duela uhin elektromagnetikoen emisioak arautzeko eskumenik. Aipatu behar da estatu mailako legea 2001 urtekoa dela eta gai honetan azken urteetan egon diren aldaketak direla eta, hainbat udalek behar-beharrezkotzat jo dutela arlo hau arautzen hastea, egun dagoen hutsuneari

erantzun eraginkor bat emateko. Aldiz, kontuan hartu behar da, pauso hori eman duten udalek beti telekomunikazio enpresak aurrean izan dituztela, ordenantzen edukiaren aurka agertu direlarik (alegazioen bidez, auzi-bidea jarraituz, etab.), gai horretan eskumena estatu mailakoa dela argudiatuz. Hondarribiko Udala errealitate horren jakitun den arren, Ion Elizaldekin uste du gero eta udal gehiagok, gai hau arautzeko pausoak emanez gero, agian etorkizunean estatu mailako eskumena alda litekeela, EAEko legebiltzarrak berezko legedia onartzeko atea irekitzeko. Nicolas Corta ingeniariak gaineratu du, gaur egungo joera, udalerrietan potentzia baxuko antena asko jartzea dela.

- ✓ Gaur egun zenbat lizentzia eskatzen ari dira telekomunikazio arloko enpresa hauek Hondarribiko Udalean? Bileran zehar aipatu diren neurketetatik lortutako emaitzak baxuak izan al dira beti? Bigarren galdera erantzunez, Ionek aipatu du neurketek beti emaitza onak eman dituztela (hau da, ez dituztela inolaz ere estatuko legediak ezarritako mugak gainditu), baina hala ere, Udalak uste duela estatuko legediak ezarritako muga horiek oso altuak izaten jarraitzen dutela eta gehiago mugatu beharko liratekeela. Dena den, mugaketa horrek errealista izan behar duela adierazi du Ionek, eta estatuko legedia errespetatzen duena, eskumenen arloko mugak gainditzen ez dituen, hain zuzen ere. Lizentzien tramitazioari dagokionez, enpresek udal baimen eskaerak aurkeztu izan dituztela eta horiek legeak dioenarekin bat etorri izapidetu direla erantzun du Ionek. Hala ere, azken urteetan ez dela lizentziarik eman azaldu du (salbuespena lehendik ezarrita zegoen antena baten kasua izango litzateke –aldaketa batzuk egin ahal izateko udal baimen eskaera aurkeztu zuen udaletxean-). Lehen galderari erantzuna ematen aitzeko, Ionek azaldu du instalazio hauen etorkizuneko legeztatze prozesuetan, sailkatutako jardueri buruzko legediak berak exijitzen dituen dokumentuez gain, estatu mailan dagokion ministerioaren aurrean aurkezteko beharreko dokumentazioa ere udaletxean aurkezteko eskatuko zaiela ere enpresa horiei (gai hau arautzen duen estatuko legediak, enpresa hauen jarduera legearekin bat datorrela egiaztatzeko, zenbait agiri aurkezteko beharra aurreikusten ditu, instalazioak martxan jarri aurretik eskuartean izatea derrigorrezkoak gertatzen direnak –dokumentu horietan antenen potentzia, emisioen ezaugarriak, ... deskribatzen dira-). Beraz, dagokion ministerioak alde aurretik aztertzen duen dokumentazioa ere udaletxean aurkezteko eskatuko zaio dagokion lizentzia eskuratu nahi duen enpresari (Udalarentzat izaera informatiboa izango duen dokumentazioa izango da). Azkenik, aipatu behar da Udalak arlo honetako enpresekin hitzartu nahi duen hurrengo urteetarako plangintza udal web gunean eskegitzeko asmoa duela, eta plangintza hori ere Herritarren Foroko kideei ere aurkeztuko zaiela.
- ✓ Nola kontrolatzen du Udalak bere egunerokotasunean antena ilegalen instalazioa gertatzen ari ote den? Ion Elizaldekin erantzun du kontrol hori aurrera eramaten dela, Udalak duen jardueren gaineko kontrol sistemaren bidez (bere ohiko jardunbidearen bidez). Bestalde, galdera hori mahai gaineratu duen herritarrek zera proposatu du; indarrean dagoen legedia betetzen ez duten enpresen zerrenda publiko egitea eta edonork kontsultatzeko tokietan eskuragarri egoteko bideak martxan jartzea, presioa egiteko moduan edo.
- ✓ Osasun arloko kezkei dagokionez, bilerara etorritako zenbait herritarrek gaineratu dute, Osakidetza berritako kontsulta egiteaz gain, beraien ustez interesgarriago izango litzatekeela azterketa sakon bat egitea. Ion Elizaldekin aipatu du Herritarren Foroko zenbait kidek egindako proposamena Udalean bideratuko duela. Ildo honetan, Miren Legorburuk adierazi du Hondarribian dagoen minbizi kopuruari buruzko kezka bera Gipuzkoako beste udalerririk askotan ematen dela (ez dela Hondarribiko kasu bereizgarria), eta minbizi kopuruaren arloan, Hondarribia Gipuzkoako batez bestekoaren barnean dagoela gaineratu du. Bere ustetan, Udalak uhin elektromagnetikoen gaia arautu nahi du ardura eta prebentzio

printzipioengatik, eta horregatik dela Hondarribiko ordenantza estatuko legedia baino murriztaileagoa.

- ✓ Uhin elektromagnetikoen neurketak egiten dituen enpresak behar bezala homologatuta daude? Baiezko erantzuna eman da Udaletik (lehenik, uhinak neurtzeko balio duen makina kalibratu egiten da eta ondoren homologatu).

4. Hondarribiko autobus zerbitzuaren inguruko berrikuntzak

Ion Elizaldeek azaldu du Gipuzkoako Foru Aldundiak aterako duen bus zerbitzuaren hurrengo urteetarako esleipen berrian zerbitzuak hobera egingo duela eta helburua ahalik eta hondarribiar gehienetara iristea izan dela (hau da, bus zerbitzua ahalik eta herritar kopuru handienari eskaintzea), beti ere, egon daitezkeen mugak ahaztu gabe. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak prestatutako hasierako planteamenduari egindako ekarpenen dokumentua Aldundian aurkeztu dela gaineratu du Ionek. Ondoren, bus zerbitzuen berrikuntzen azken bertsioa aurkeztu die bertaratutakoei (Gipuzkoako Foru Aldundiaren azken proposamena onartzen denean, Herritarren Foroko kideei gai honi buruzko dokumentazioa banatuko zaie), tamalez Udalak planteatutako alegazio guztiek Aldundian aurrera egin ez dutela gaineratuz.

Jarraian laburbiltzen dira bileran parte hartu dutenek egindako galderak eta proposamen nagusiak:

- Noiz jarriko dira martxan zerbitzu berriak? Ziurrenik uda ondoren izango dela erantzun diote udal ordezkariak (iraila inguruan edo). Kontuan hartu behar da, dena den, zerbitzu berria esleitzeko lehiaketa oraindik ez dela argitaratu.
- Udalak zein irizpide hartu ditu kontuan ibilbideak diseinatzeko orduan? Lehen aipatu den moduan, irizpideetako bat ahalik eta hondarribiar gehienei zerbitzua eskaintzea izan da, zerbitzua biztanle dentsitate handiagoa duten kale edo zonaldeetatik igarotzea bermatuz.
- Ez al du Udalak autobusei zuzendutako bideak eraikitzea aurreikusten? Galdera hori planteatu duen herritarren ustetan, bus zerbitzuaren lineen azken proposamena aztertuz (Ionek azaldu duena), ikus daiteke nola, besteak beste, Donostia kalea, Sokoa, etab. igarotzeko orduan denbora luzea beharko duela autobusak eta ondorioz, ez dela zerbitzu eraginkor bat izatera iritsiko. Ion Elizaldeek onartu du bus-bideak eraikitzea garrantzizkoa dela zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko eta N-638 errepidearen zabalerako proiektuan aurreikusita dagoela, esaterako, halako bide batean eraikuntza. Diseinatu eta adostutako ibilbideei dagokionez, bere ustez planteamendua egokia dela adierazi du (nahiz eta planteatutako alegazioek guztiek ez duten izan nahi zen arrakasta) eta proposatutako ibilbide horiek azken urtean zehar udal mailan nahiz ondoren herritarrekin egindako lan gogorraren fruitua direla gehitu du.
- Zergatik aldatu dira autobus zerbitzu zuzenen ordutegiak? Interbus-eko ordezkariak aipatu du gai hori ez dagoela oraindik itxita eta alderdi hori aldatzeko aukera egongo litzatekeela.
- Udaletik egindako alegazioen dokumentutik onartutako proposamenei dagokionez, noraino iritsiko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren konpromiso maila? Hau da, zerbitzu berriak martxan jarri eta horietakoren batetan edo erabilera txikia dela ikusiz geroz, zerbitzu hori bertan behera geratzeko arriskua dago? Ion Elizalderen hitzetan, ez litzateke hori gertatu beharko. Ondoren, galdera horiek planteatutako herritarrek beste bat gaineratu du: Faroaren inguruan eraikitako urbanizazio berrira iristeko zerbitzuren bat martxan jarriko du Udalak? Ionek erantzun dio, urbanizazio horren ezaugarriak direla eta (etxeen tipologia, etab.), eremu horri zerbitzua emateko jar zitezkeen bus zerbitzuaren erabiltzaile kopurua oso baxua izango litzatekeela eta hortaz, zerbitzu berezi horren bideragarritasuna oso txikia

litzatekeela. Gainera, zerbitzu berezi hori martxan jartzeko aukera Udalaren esku egongo litzateke eta Ionon iritzia da badaudela udalerrian bestelako eremu batzuk lehentasun handiagoa dutenak.

5. Ulia-Jaizkibel Kontserbazio Bereziko Eremuari buruzko kudeaketa planari lotutako partaidetza prozesua

Naroa Susperregik, Eusko Jaurlaritzak deituta, Lezoko Gezala auditorioan, martxoaren 30ean antolatutako Ulia-Jaizkibel Kontserbazio Bereziko Eremuaren babeserako oinarri teknikoak idazteko partaidetza prozesuaren aurkezpenaren nondik norakoak laburbildu zituen:

- Natura 2000 Sarean barneratuta dauden Ulia eta Jaizkibel mendiak 2004 urtean "Batasunaren Garrantzizko Leku" moduan izendatu zituen Europako Batzordeak. Beraien lurralde eremuan Natura 2000 Sarean barneratutako natur guneak dituzten estatuak derrigortuta zeuden 6 urteren buruan eremu horiek Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko (horretarako, beharrezkoa da ere eremu horietarako kudeaketa planak onartzea –kudeaketa planen bidez finkatzen dira natur gune horietako babes eta kudeaketa neurriak-). Gauzak horrela, 2010 urterako beharrezkoa da Batasunaren Garrantzizko Lekuak Kontserbazio Bereziko Eremu moduan izendatu eta horien kudeaketa planak onartuta izatea.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Ulia eta Jaizkibelgo BGLak 2004 urtean izendatuak izan zirenez, Eusko Jaurlaritzak Ulia-Jaizkibel KBEari dagokion kudeaketa plana onartzeko lanak aurrera eramaten ari da une honetan. Horretarako, kudeaketa plan horren edukia (oinarri teknikoak) adosteko asmoz, partaidetza prozesu bati ekin dio eta berau Lezon, martxoaren 30ean, aurkeztu zen. Beraz, herritarren partaidetzarekin osatuko dira Ulia-Jaizkibel KBEaren kudeaketa planaren oinarri teknikoak, ondoren Eusko Jaurlaritzak onar ditzan.
- Naroa Susperregik aipatu zuen moduan, aurkezpen bilera horren ondoren, Ulia-Jaizkibel KBEaren kudeaketa plana lantzeko gaikako lan mahaien bilerak antolatuko ditu Jaurlaritzak. Hori dela eta, Hondarribiko Agenda 21en Herritarren Foroko kideek bilera horietan parte hartzeko aukera ere badutela azaldu zuen Naroak, eta horretarako, beti bezala, berarekin harremanetan jar daitezkeela (ingurumena@hondarribia.org eta 943-111242 telefono zenbakian).

6. Bertaratutakoen zalantzak edo proposamenak

Bilerarekin amaitu aurretik, Ion Elizalde bertaratutakoei zalantza edo ekarpen gehigarriren bat egiteko aukera eman die. Horrela, Miren Legorburu zinegotziak hartu du hitza bi gai planteatzeko; batetik, adierazi du bere ustez Udaleko Ingurumena eta Agenda 21en teknikariak ere parte hartu beharko lukeela hirigintza planeamendu orokor berriaren eraketa prozesuan, eta bigarrenik, Oceana elkarteak eta Euskadiko Biologoek Elkargoak Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari lehengo astean luzatutako proposamenarekin Hondarribiko Udalak ere bat egin dezala. Ion Elizalde Mirenek egindako ekarpena positibotzat jo du eta Udalak proposamenarekin bat egiteko konpromisoa bere gain hartu du. Aldiz, Josu Alvarez-ek ez du proposamen hori bideragarria denik uste eta horrela adierazi die bertaratutakoei.

Jarraian laburbiltzen da Oceana eta Euskadiko Biologoek Elkargoak landu duten proposamena:

Bidasoa ibaia itsasoratzen den puntutik Biarritzeraino babestuta dagoen eremuarekin bat egin asmoz, Ulia eta Jaizkibel mendira arteko kostaldea babesteko proposamena egin dute bi elkarte horiek. Era horretan, Ulia eta Jaizkibel arteko kostalde eremua babestuz (13.000 hektarea), Biarritzetik Ulia mendira arte, denera, 27.000 hektareako ingurune babestua lortuko litzateke (egun, Ulia-Jaizkibel Kontserbazio Bereziko Eremu bezala izendatuko den babes ereduak soilik lur eremua barneratzen du, ez ordea itsasoari dagokion zatia).

Oceanak eta Euskadiko Biologoek Elkargoak proposamen hori aurkeztu aurretik, alde aurretiko ikerketak gauzatu zituzten. Ikerketa horien arabera, Ulia eta Jaizkibel arteko 13.000 hektareako eremuan animalia eta landare aberastasun handia dago (Europar desagertzen ari diren zenbait espezie ere barneratuz). Itsas hondoa bizi diren espezieen mesederako ez ezik, kostalde babestea bertatik igarotzen diren animalientzat ere ezinbestekoa dela ondorioztatzen da ikerketa horretatik. Beraz, itsas ekosistema modu eraginkorrean babeste aldera, ezinbestekotzat jotzen dute 2 elkarteek itsas bazterra ere babestea, Bidasoatik Biarritzeraino babestua dagoen eremuarekin bat eginez, hain zuzen ere.

Honenbestez, bilera 21:30tan amaitu da.